BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Getxo
bizi ezazu

**PRENTSA-OHARRA**

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN GANEKO ERAKUSKETA IBILTARIA GETXORA HELDU DA, ERAKUNDE HORREN GARRANTZIA ZABALTZEN JARRAITZEKO

- **"Bizkaiko Batzar Nagusiak, ezagutuz" erakusketea gaur goizean edegi da Algortako Geltoki plazan, eta bertan izan dira Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzarretako Lehendakaria eta Amaia Agirre Muñoa Getxoko alkatea.**

- **Erakusketea Bizkaiko udalerri horretan egongo da maiatza osoan, eta, bertatik, ekainaren 3an, Portugaletera joango da.**

(Getxon, 2021eko maiatzaren 7an). Ana Otadui Biteri, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria, eta Amaia Agirre Muñoa, Getxoko alkatea, izan dira herri horretako Geltoki plazan egin dan "Batzar Nagusiak, ezagutuz" erakusketaren inaugurazino-ekitaldiko buru. Erakusketa ibiltaria Bilboko erdigunetik eskumaldeko bihotzera doa, XIV. mendetik aurrera lurraldeko gorabehera nagusien protagonista eta lekuko eta Europako lehenengo sistema parlamentario eta demokratikoetako bat izan dan erakunde baten garrantzi historiko, politiko, sozial eta kulturalari balioa emoteko.

"Bizkaiko Batzar Nagusiak, ezagutuz" erakusketea formatu handiko 12 panelek osatzen dabe, eta erakunde parlamentario moduan daukan eskumen-egitura zabala azaltzen dau, eta baita batzen dauen kultur ondarea be. Erakusketan ibilbide xume bat eskaintzen da bere lau egoitzetako (Bilbo, Gernika, Abellaneda eta Geregiaga) eukietatik, Gernikako Batzarretzean zehaztasun handiagoagaz geldituz, Gernikako Arbolea demokraziaren, askatasunaren eta bakearen euskal sinboloaren babeslekua dalako.

Erakusketaren berrinaugurazinoan, Ana Otadui Biterik azpimarratu dau Batzar Nagusiak *"XXI. mendeko legebiltzarra"* dirala, *"bizkorra, dinamikoa eta ordezkatzen dituan herritarrakaz etenbarik komuniketan dana"*. Hori horrela izanda, *"ez dogu ahaztu behar gure sistema demokratikoak Erdi Aroan dituala sustraiak"*, eta horrek Legebiltzar honi *"modernidade eta tradizino"* kutsu berezia emoten deutsola. Batzar Nagusietan Bizkaiko herritarrei *"oso gertutik"* eragiten deutseen erabagiak hartzen dira, *"horregaitik, gure helburua bertan egiten dan lana hobeto ezagutarazotea da"*. Egiteko hori ez da Parlamentuaren funtzinoak erakustera mugatzen, *"harago doa"*; izan be, *"ondare aberatsaren"* ikuspegi orokorra jasoten dau, Otaduik gogorarazo dauenez, *"bizkaitar guztien ondarea dalako"*.

Beste alde batetik, Amaia Agirre Muñoa Getxoko alkateak azpimarratu dauenez, bere herritarrei eragiten deutsen politika *“asko”* erakunde horretan hartzen dira, *“parekorik ez daukan erreferentea da, Bizkairen, Euskadiren eta Getxoren garapena bermatzen dau”* eta *“personen eta herrialdearen ongizatea bermatzeko oinarria da. Gure egunerokotasunaren eta Bizkaiko, Euskadiko eta Getxoko garapen sozial, ekonomiko, politiko edo kulturalaren funtsezko gaiak dira Bizkaiko Batzar Nagusietan lantzen diranak”,* esan dau.

Ezin daiteke ukatu Bizkaiko Batzar Nagusiek tradizino historiko handia daukiela. Tradizino horren jatorria Erdi Aroa baino lehenagoko garaietan dago, eta, logikoa danez, Gernikako Batzarretxea eregi baino lehenagoko garaietan. Otaduik gogorarazo dauenez, Bizkaiko Parlamentua Europako lehenengo sistema parlamentarioetako bat izatea *“askotan oharkabean pasetan da herritarrentzat”,* eta, hori dala eta, Batzarretako Lehendakaritzak erakundea bere lau *“hormetatik”* –egoitzetatik– ateratea erabagi dau, Bizkain zehar ibili daiten, testuakaz eta irudiakaz erakundearen balio historiko aberatsa eta lurralde historikoko herritarren ordezkaritza- eta partaidetza-organo gorenean hartzen diran erabagi garrantzitsuak erakusteko. Hurrengo helmugea Portugalete izango da. Erakusketak itsasadarra zeharkatuko dau Ezkerraldeko udalerri jentetsu horretan ekainaren 3an eta Durangaldean amaituko da garagarrilean.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Getxo
bizi ezazu

**NOTA DE PRENSA**

# LA EXPOSICIÓN ITINERANTE SOBRE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA SE TRASLADA A GETXO PARA CONTINUAR DIVULGANDO LA IMPORTANCIA DE ESTA INSTITUCIÓN

- **La muestra "Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas" se ha inaugurado esta mañana en la plaza Estación de Algorta, en un acto que ha contado con la presencia de la Presidenta de la Cámara vizcaína, Ana Otadui Biteri, y de la Alcaldesa de Getxo, Amaia Agirre Muñoa.**

- **La muestra permanecerá en este municipio de Bizkaia durante todo el mes de mayo, y desde aquí se trasladará a Portugalete, el 3 de junio.**

(Getxo, a 7 de mayo de 2021). La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkiaia, Ana Otadui Biteri, y la Alcaldesa de Getxo, Amaia Agirre Muñoa, han inaugurado esta mañana la muestra "Las Juntas Generales, conócelas" en la plaza Estación de Algorta. La exposición itinerante viaja del centro de Bilbao al corazón de la Margen Derecha para poner en valor la importancia histórica, política, social y cultural, de una institución que ha sido protagonista y testigo de los principales avatares del territorio desde el siglo XIV y que se considera uno de los primeros sistemas parlamentarios y democráticos de Europa.

"Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas", se conforma a través de 12 paneles de gran formato, donde se explica la amplia estructura competencial como institución parlamentaria y también el patrimonio cultural que atesora. En la exposición se ofrece un sencillo recorrido por el contenido de sus cuatro sedes (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga), parándose con más detalle en su sede principal, la Casa de Juntas de Gernika, por ser refugio del símbolo vasco de la democracia, la libertad y la paz, como es el Árbol de Gernika.

En la reinauguración de la muestra, Ana Otadui Biteri ha incidido en que las Juntas Generales son "*un parlamento del siglo XXI, ágil, dinámico y en permanente comunicación con la ciudadanía a la que representa."* Siendo esto así, *"no debemos olvidar, que nuestro sistema democrático hunde sus raíces en la Edad Media*", lo que impregna a este Parlamento de un remanente especial de "*modernidad y tradición"*. En las Juntas Generales se toman decisiones que afectan "*muy de cerca*" a la ciudadanía de Bizkaia,

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Getxo
bizi ezazu

"*por eso nuestro objetivo es que se conozca mejor la labor que realiza* ". Una labor que no se queda solo en mostrar las funciones de un Parlamento, sino que "*va más allá*", ya que se incluye una visión general del "*rico patrimonio que atesora"*, que, como ha recordado Otadui, "*es un patrimonio de todos y todas las vizcaínas*."

Por su parte, la Alcaldesa Getxo, Amaia Agirre Muñoa, ha destacado que "*muchas*" de las políticas que afectan a los vecinos y vecinas de su localidad se toman en esta institución, que es "*un referente sin parangón, que garantiza el desarrollo de Bizkaia, Euskadi y Getxo*" y que es "*la base para garantizar el bienestar de las personas y del país. Cuestiones fundamentales de nuestro día a día, y del desarrollo social, económico, político o cultural de Bizkaia, de Euskadi y de Getxo son las que se trabajan en las Juntas Generales de Bizkaia.",* ha dicho.

Lo que es innegable es que las Juntas Generales de Bizkaia cuentan con una gran tradición histórica, cuyos orígenes se remontan a épocas previas a la Edad Media, y, lógicamente, a la construcción de la Casa de Juntas de Gernika. El hecho de que el Parlamento de Bizkaia sea uno de los primeros sistemas parlamentarios de Europa "*pasa muchas veces desapercibido para la ciudadanía"*, ha recordado Otadui,  por lo que la Presidencia de la Cámara ha decidido sacar la institución de sus cuatro "paredes" –sedes- y recorrer Bizkaia para mostrar, con textos e imágenes, el rico valor histórico de la institución y las importantes decisiones que se toman en el órgano máximo de representación y participación popular de la ciudadanía del Territorio Histórico. La próxima parada de la muestra será Portugalete. La exposición cruzará la ría para recalar el 3 de junio en este populoso municipio de la Margen Izquierda, para finalizar después en la comarca de Durangaldea en el mes de julio.